

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA, 2026KO
EKAINAREN 19A
bidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
1.005. ZENBAKIA

Txanpa ona hartzeko prest

Asteburu honetan hasiko dira
2026ko arraun ligak. Bertako arraun
elkarteetako kirolariak olatu eta
emaitza onenen bila joango dira • 4-20

Arrauna utzi ondoren,
bizitzeko beste era
batera moldatzen • 4-5

Sanmartzialei harrera
egiteko prest dira
irundarrak • 21-25



'Platanitoak' apalategian gorde eta gero, zer?

Esku artean duzu aurten-go HITZA-ren arraun gida. Besteak beste, liga horietan izango diren arraunlarien zerrendak ikus daitezke 18. orrialdetik 20ra. Izen-abizen horietan aldaketa dezente izan dira iazkotik aurtengora, ordea. 2025eko plantilletan bai, baina 2026koetan izango ez direnatako birekin izan da hedabidea, jakiteko ea zer sentitzen duten urte askoz arraunaren elitean izan ondoren, *platanitoak* edo arraun egiteko pieza bakarreko kirol jantzi horiek apalategietan ikusten dituztenean. Ane Mendizabal Sarriegi (Hondarribia, 1997) eta June Galardi Zapirain (Oiartzun, 2001) dira.

Biak 2018tik izan dira goi mailako arrauneari. Oiartzuarra beti Hibaikan; hondarribiarra Donostiarra, Hondarri-

Datozen orrialdeetan 2026ko arraun ligekin harremana duten edukiak irakurtzeko aukera izango da. Baina, badira arrauna utzi berri dutenak. Haietako birekin izan da HITZA.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

bia (bost denboraldiz) eta Tolosaldea artean. Biek ala biek uste dute eliteko arraunlari izatea bizitzeko estilo bat dela. «Erabaki behar duzu bizitza arraunak eskatzen duen guztira moldatzea», esan du Mendizabalek. Hortaz, iazko udazkenean arrauna uzteko era-



Arraun egiteko jantzi edo 'platanitoak', arraunlari ohi baten etxean. HITZA

bakiarekin batera, bizitzeko beste era batekin aurrez aurre topo egin duela aitortu du hondarribiarrak: «Astean sei egunetan beti entrenamenduak izanda, bizitza nolabait horretara begira antolatzen nuen. Lehen egiten ez nituen gauza askori eusteko tartea dut, adibidez, ondoan ditudan pertsonen gehiagotan egoteko aukera».

Galardik aipatu du arraunlari garaian denbora gehiago pasatzen zuela Hibaikako taldekideekin, lagunekin edo familiarekin baino. «Astean sei egunetan zaude haiekin. Gainera, entrenamendu edo estropadetatik at bizi estilo bat mantendu behar duzu goi mailako kirolean ari zarelako, eta horrek exijentzia bat eskatzen duelako».

**Hondar**
www.restaurantehondar.com
Zuloaga, 20. HONDARRIBIA. Tel.: 943 64 27 93

Gora Ama Guadalupekoa!

**LARRAÑAGA PROIEKTUAK**
GORA AMA GUADALUPEKOA!
ERREFORMA OROKORRETAN ETA BARNE DEKORAZIOAN ADITUAK
www.larranaga-proiektuak.com
Talaia industriagunea P-1, 8. lokala. OIARTZUN - Tel.: 943 558 104





Asteburuan hasiko dira arraun ligak [horien egutegia astekari honen 17. orrialdean]. Bi arraunlari ohiek aitortu dute neguan edo udaberriko estropadetan ez diotela arreta gehiegirik jarri utzi berri duten horri. Baina ligak hemen izanik, arraunlari sena atera zaiela adierazi dute txantxetan, «estropadaren bat egiteko gogo sartzu zait, baina bakarra!», Mendizabalek. Galardik, utzitako hartatik talde giroa, «talde kohesioaren» falta sumatzen du gehien, «baina Hibaikaren lehen fan-a izango naiz aurten; egia esan denbora batez ez dut izan gogorik arraun bat hartzeko, baina ligak hastear direla, aitortu behar dut zerbait piztu zaidala barruan...».

Eliteko kirola utzi, *platanittoa* zintzilikatu, baina kirolari sena ez dute galdu. Era batera edo bestera kirolarekin harremana dute, mendian ibiltzen

dira korrika, Mendizabalen kasuan baita bizikletan edo igeriketan ere, «baina bakarrik edo lagunekin». Galardik kontatu du kiroldegiko ergometroak ez dituela gustuko, eta Hibaika Arraun Elkartearen egoitzako batean izan zela ariketak egiten, «horietara ohituta nago oraindik».

Joan-etorriak

Eusko Label eta Euskotren ligetako Gipuzkoako traineruetan aurten eman diren bajen azterketa egin du HITZA-k. Gizonen Eusko Labelen Hondarribia, Getaria, Orio, San Juan eta Donostiarra artean hemeretzi kirolarik utzi dituzte klub horiek arrazoi bategatik edo besteagatik. Emakumeen Euskotreneko Hibaika, Arraun Lagunak, Donostiarra, Orio, Tolosaldea eta Zumaia artean 59 izan dira. San Juan iritsi berrian ez da bajarik. Urtero errepikatzen den joera da hori.

«Arraunak denbora asko kentzen du. Nire ustez, emakumeok kirolek at diren bestelako faktoreei garrantzi handiagoa ematen diegu gizonek baino, izan lagunak, bikoteak, lana, ikasketak... Emozionalagoak gara, eta nire iritzia da den-dena ondo egin nahi dugula. Baina arraunean bazabiltza, ezin denetara ondo iritsi. Hori izan daiteke emakumeek arrauna sarriago uztea-

ren arrazoietako bat». Beste argudio bat eman du hondarribiarrak: aldeak daudela gizonek eta emakumeek dituzten baldintzetan, ematen dizkieten ordain-sari «askoz apalagoetan» fokua jarri.

Galardiren ustez, atzera begirakoa egin behar da zifra horien atzean egon daitekeena azaltzeko. «Aldagai asko hartu behar dira kontuan. Historia, gizarte sistema, finantzaketa ereduak, orain arte arraunean nahiz kirolean oro har emakumeek izan dituzten aukerak... Emakumeok ekinaren ekinaz irabazi dugu espazioa arraunean, ez digu inork ezer oparitu. Baina egiturazko baldintzetara joan beharko litzateke emakumeen joan-etorrien emari handi hori ulertzeko».

2026ko arraun sasoiari begira, Galardik zein Mendizabalek uste dute emakumeetan Arraun Lagunak dela faborito Euskotren Liga eta Kontxa irabazteko. Baina orain arteko txapelketetan donostiarrek hurrengoei ateratako aldeak ez direla oso handiak izan ondorioztatu dute, beraz, haiengandik hurbil egon daitezkeen traineruak izango direla ziur dira, «sorpresaren bat egon daiteke egunen batean», Mendizabalek; «Tolosaldea beti hor dago, San Juan ondo hasi da, eta erne Hibaikarekin», Galardik. ■



Baztarrika, Olaskoaga, Urdanbide eta Cano, egile eta koordinatzaileak.

Arraunaren historian izen handienetakoa da San Pedrona. Munduaren mapan jarri du Pasaiaiko barrutia kirol horrek. Arrauna historia eta ondarea da San Pedron, haren izaeraren zati handi-handi bat. Baina gaur arte hori ez da bildua izan era oso eta bateratuan. Bada, San Pedrok badu munduari emateko beste ikur bat: *Sentimendu baten garaipenak. Pasai San Pedroko arraunaren historia eta ondarea 1854-2020* liburua egin dute askoren artean. Hilaren 22an, 19:30ean, aurkeztuko dute Lonjan. Pasaiaiko Udalaren Sorginarri bildumaren barrukoa da. Egun horretan bertan eros daiteke.

Imanol Urdanbide Sanpedrotarra Arraun Elkarteko presidente izandakoa da egilea, eta sortze lanean Sebastian Canoren laguntza izan du. Xabier Baztarrikak eta Begoña Olaskoagak koordinatu dute edizioa, eta haiekin kolaborazio zuzenean izan dira Agustín Osa hasieran, Jose Ignacio Elortegi, Eugenio Urdanbide eta Xabier Isasa. Liburua egiteko elementu garrantzitsu izan dira arraun elkartearen urtekariak, horietan datu asko jasota zeudelako; urtekariak Jose Enrique Iriartek, Agustín Osak, Jose Antonio Sanbaudeliok, Jose Manuel Santosek, Joxe Manuel Oiarbidek eta Ignacio Etxeberrriak egin zituzten. Euskararen tratamendua Aintzane Atelaren esku gelditu da.

Beraz, Urdanbide-Cano-Olaskoaga-Baztarrika laukotea izan bada ere argitalpenari berotasuna eman dion laukotea, beste askoren lanari esker egin ahal izan da hamar ataletan ba-

Historia eta ondarea morea, liburuan

'Sentimendu baten garaipenak. Pasai San Pedroko arraunaren historia eta ondarea 1854-2020' liburua egin eta hilaren 22an aurkeztuko dute.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

SAN PEDRO



SAGASTI ELIZONDO

Esther Sagasti Orodea Ana Elizondo Iriarte

Barne Diseinua

ETXEBIZITZA NAHIZ LOKALEN PROIEKTU ETA LANAK

Santxoenea 31 . Erretereria . 679703944 . 605765316
www.sagastielizondodecoracion.com



AUPA HIBAIIKA!

samar
ADMINISTRATIOAK

Biteri 45, behea. Erretereria-Orereta
943 503 224 - 688714 314
samar.admon@gmail.com

natutako 224 orrialdeko liburua. San Pedroren historia, ondarea, izaera eta izatea irudikatzen du *Sentimendu baten garaipena*-k. Hizkien eta datuen ondoko argazki eta irudiak ere askotariko bideetatik lortu dituzte, eta horiek guztiei diseinua eta maketazioa emateaz Marmol Estudioa eta Aritz Aranburu arduratu dira.

Urte askotako lana izan da argitalpen morea egikaritzea. Xabier Baztarrিকা koordinatzaileak azaldu du hark 2020an izan zuela, Imanol Urdanbideren eta Sebastian Canoren partetik, liburua berri. «Liburuaren hitzaurrea egiteko eskatu zidaten. Erronka onartu, eta testuak berrikusteko eskaini nuen nire burua; Begoña Olaskoaga bikotekidea ere horretan inplikatu zen». Baztarrিকা kontatu du 224 orrialde horietan bidaia bat eskaintzen dela «gure herriko arraunaren iraganera, orainaldira, eta etorkizunera». Hala, azaldu du San Pedroko arrauna bi arotan sailka daitkeela: lehena 1854tik 1936ra artekoa, Aita Manuel nabarmen izan zen aroa

alegia; eta bestea 1958an Sanpedrotarra Arraun Elkartea sortu zenetik aurrerako, Julian Osa entrenatzailea eta Juan Carlos Fontan lemazaina nabarmentzen direlarik aro horretan.

Xehetasunak

Baztarrികak argitalpenaren hainbat xehetasun eman ditu. Batetik, aipatu du bertan eduki orokorrez gain (traineruen estropaden eta herriko arraunaren sorrera eta historia, *Libia*-ren jatorria, estropaden kronikak...), Sanpedrotarra Arraun Elkartearen 1958ko sorreraren eta haren bilakaeraren gaineko azalpen asko daudela. Gainera, irabazitako bandera guztien zerrenda ikus daiteke «bandera horiek denak arraun elkartean daude; batzuk zaharberitu behar izan dira, beste batzuk erabat berritu». 1944 eta 2020 urteen artean San Pedrok izan dituen arraunlarien zerrendak ere ikus daitezke, baita dokumentu eta artikulu asko ere, prentsakoak, arraunean espezializatutako aldizkarietatikoak, «eta baita

bertso paperetan jasotako estropaden kronikenak ere».

Azala ere esanguratsua da. «Kontxako estropada eremu berriarena da. 1989an, Sanpedrotarra Arraun Elkarteko kideak Imanol Urdanbide presidentea buru zela Kontxako arduradunekin harremanetan jarri ziren, esateko egiazta zezatela estropada eremua. Izan ere, adibidez, irteerako 1 balizatik ez zen ikusten kanpoko 1 baliza. Neurketa berria egin, eta 2,6 graduko akatsa hauteman zen lehen kalean. Hau da, ordura arte 1 kalea zutenek 33 metro gehiago egiten zituzten. San Pedrori esker, hori konpondu zen. Eremu berriarena da liburua azaleko planoan».

Liburua gazteen esku ere izatea nahiko luke Baztarrികak. San Pedroko etxe gehienetan izan dira arraunlariak, edo arraunarekin lotura izan dutenak. Familien barruko transmisioa oinarri izan da beti herriko izaeraren parte handia den arrauna errotzeko bidean. Epilogoaren zati bat egungo arraunlariari eskaini diete. ■

Bizkarreko mina - Ziatika
Hormona arazoak
Buruko mina - Migrainak
Akufenoak - Estresa

Bizi Ondo
KIROPRAKTIKOAK
OIARTZUN

Fabio Alves Dokorea
943 10 80 91 - 688 73 11 16
biziondo.secretaria@gmail.com
@biziondo_kiropraktikoak

AUPA HIBAIIKA!

Tejidos
Ami
Oihalak

@tejidosamioihalak
Martin Etxeberria kalea, 4.
Erreterria.
Tel.: 943 52 55 84

DEIIKA **MEKANIKA**
GEST **AROSZTEGIA**

HASIERAKO LANBIDE HEZIKETA
DBHko Graduatua

Fp **ZURGINTZA - ALTZARIGINTZA**
FABRIKAZIO MEKANIKOA

labur.eus/DEIIKAgest

Alaberga auzoa, 38 B. Erreterria-Orereta
info@fpberreterria.eus - Tel.: 943 52 95 33

Euskotren eta KAE1 ligetan sendotu nahi du Hibaikak

Euskotren eta KAE1 ligetan ariko dira Hibaikaren bi ontziak. Bi taldeetan aldaketa handirik gabe, helburua, bera: ligetan eroso mantentzea, jaitsieratik urrun.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Eskifaikak prest, gogotsu dira Hibaikaren bi ontziak traineru denboraldiari ekiteko.

Emakume seniorren *Madalen* ontzia Euskotren Ligan ariko da aurten berriro, emakumeen arraunaren gorenean Iñaki Mendizabal entrena-tzaileak gidatuta. Hilaren 28an hasiko dute lehia agertoki berri eta ezezagunean, Buitrago del Lozayako (Madril, Espainia) Riosequillo urtegian. Senior gizonen ontziak, berriz, bihar izango du lehen estropada Astilleron (Kantabria, Espainia) eta etzi bigarren jardunaldia, Pasaiaiko badian. KAE1 Ligan ariko da aurten Dani Cobjuc entrena-tzaileak gidatuta Hibaikako gizonen trainerua, iaz helburu zuen igoera erdietsita.

Erreterria-Oreretako arraun elkar-

teko bi traineru nagusietako entrena-tzaileekin izan da HITZA denboraldia hastear denean ezarri dituzten erronken berri jaso, eta dituzten sentsazioez hitz egiteko.

Aldaketa batzuk izan dituzte arraun-larien taldean, «urtero izaten diren ohiko bajak izan direlako tartean», esan du Mendizabalek. Horiek utzitako lekua Gazte Mailatik igo berri diren harrobiko arraunlariekin bete du entrena-tzaileak. Hamasei arraunlari eta bi patroirekin egingo du denboraldia emakumeen traineruak. Ordezko patroia, Gazte Mailako lehen urtekoa, gaztea, «hura trebatzea da helburua, eta ikustea etorkizunera begira lan horretarako balio duen edo ez». Ontzia ere, oso gaztea. Iaz bigarren gazteena

izan zela Hibaikarena, Tolosaldearen atzetik, jarri du nabarmen Mendizabalek, «aurten bi 18 urteko eta 16 urteko hiru sartuta, iazko batez besteko hori jaitsi egin dugu».

Helburuak aipatuta, argi esan du prestatzaileak: «Ez dut behera begira jarri nahi, beti hori egiten dugu-eta. Euskotren Ligan mantendu nahi dugu, eta hasieratik hori buruan aterako gara lehiara, aurrenekoetatik gertu egotera; atzera begiratu gabe, aurrera begira aritzea izango dugu erronka». Ontziek maila bertsua dutela sinistuta da entrena-tzailea, baina argi esan du egoera horretan gerta daitekeela aurrekoekin egotea edo azkena izatea: «Hori asumitu behar da. Aurreko urtean gure mailan zebilen Hondarribiak kategoria galdu zuen, eta Donostiarrak, pareko izanda, mantendu. Gu, berriz, laugarren postuan ibili ginen, eta seigarrenean bukatu. Aurten aurrenekoen pare ibiltzea izango dugu helburu, ea horrek lasaitasun pixka bat ematen digun ligan zehar».

Mendizabalek azaldu du denboraldiaren gaineko ikuspegi ezberdinarekin heldu dela aurten taldea; neguan zehar ez da eskifaia hainbeste lehiatu, eta zalantzarik ez du horrek «freskura» emango diola taldeari, «hobeagoak izateko intentzioarekin gatzoz, eta batez ere, denboraldi bukaerara osoago iristeko; ea asmo hori urtean gauzatzen den». Gogotsu daude liga hasteko, «non gauden ikusi nahi dugu, eta urduritasun puntu positibo bat ere badugu».

Arerio zuzenik baduten galdetuta, li-



BIXIGARRI
gastroteka

**Aurten ere arraunari
laguntzen**

**Gora
Oarsoaldeko
ARRAUNLARIAK!**



Valentin
FOTO/BIDEOA

Tel.: 943 528 176
Bizente Elizegi, 3. Orereta-Erreterria



ARKAITZA
taberna

*Aupa Orio
eta Hibaika!*

Gamon Zumardia • Tel.: 943 522 862 • Orereta

Hibaikaren materiala, elkartean errespetua. Bi traineru izango ditu uretan, Euskotren eta KAE1 ligetan.

Imanol Saiz Gomez de Segura

gan ari diren denak direla arerio aitortu du. «Ez dugu beldurrik, errespetua bai, guztia. Lehen estropada denontzat berria den eremu batean izango dugu eta hori erronka da denontzat. Hiru ziaboga eta lau luze izango ditugu, eta gauzak ongi egin behar dira, ondo presatatu estropada hori».

KAE 1 Ligari eutsi

Esan eta egin. Iaz, Hibaikako gizon seniorren traineruak eta Dani Cobjuc entrenatzaileak jauzia egin eta ligaz igotzea jarri zuten helburu, baita bete ere. Aurten KAE1 Ligan ariko da ontzia beraz, eta hori dute helburu behinena, ligari eustea jaitsiera suposa dezaketen postuak saihestuta. Ez da epelkerietan galdu Cobjuc: «Liga konplexua izango da zalantzarik gabe, despiste txikiena nahikoa da azkena sailkatzeko. Hamabi ontzi ariko gara eta azken postu horiek, arriskua suposatzen dutenak, saihestera goaz».

Arraunlari berriak dituztela azaldu du prestatzaileak, baina iazko blokea mantentzen duela taldeak oro har, «hori aldeko aldagaia dugu». Denboraldi aurretik egindako estropadek ez dute informazio handirik ematen entrenatzailearen iritzirako: «Entrenamendu gogorragoak dira akaso, baina entrenatzeko eta talde blokea egiteko baliatzen ditugu denok. Hala ere, Mu-



trikuko eta Lekeitioko aurre denboraldiko estropadetan ongi aritu gara, Gipuzkoako Txapelketan ere bai; azken horretan KAE1 Ligan ari diren bi ontzi irabazi ditugu, eta hori positiboa da».

KAE1 Ligak asteburuan hasiko du lehia: bihar, larunbata, Astilleron (Kantabria, Espainia) lehiatuko dira 18:00etan hasita; eta etzi, Pasaiako badian Adinberri Bandera izango dute jokoan 12:00etatik aurrera.

Taldearen sentsazioak ere izan ditu hizpide Cobjuc. «Entrenamenduetatik sentsazio onekin ateratzen da beti taldea, baina estropada data gerturatu bezala, urduri jartzen hasten dira arraunlariak». Normala dela aitortu du, ligaz igo dira, gogorragoa da, eta urduriago daude horregatik. Konplexua da arlo hori lantzea». Kontziente da alderdi horretaz prestatzailea, eta gehiago lantzen saiatuko direla adierazi du: «Finean, arlo fisikoa landua dugu

jada, orain bakoitzak %100 eman behar du; buruak baina, lan handia egiten du eta zoritxarrez, horretan, galdu egiten dugu. Hori indartu beharreko alderdia da, eta horretan saiatuko gara».

Talde izaera barneratuta duela eskifaiak aipatu du, bestalde. «Aldagela batua du taldeak, talde dira eta horrela sentitzen dira, eta hori aldekoa dugu; bihotzarekin arraun egiten du taldeak. Estropada batean, baina, bihotza baino, burua behar da, batzuetan antsietatea gailentzen da, eta hortik ateratzen zaizkigu akatsak».

Sentsazio gehiago ere azaleratu ditu Cobjuc; uste du, itsasokoetan baino hobeto ariko dela Hibaikako gizon seniorren trainerua ibaietako estropadetan, «hori da dudaren sentsazioa, baina hala ere, gero eta hobeto moldatzen ari gara itsaso txarrarekin, eta adi, beraz, ez ote dugun sorpresarik emango denboraldian zehar». ■

**ATERPE**
HIGIEZIN AGENTZIA

Aupa Hibaika!

- Alokairuak eta Salmentak
- Bermea + Segurtasuna
- Aterpe Agentzia beti irtenbideak proposatzen

Tel.: 943 52 36 94
www.aterpe.com

**rosmi**

Hibaikako zaleen denda ofiziala

- Kamixeta, zapi eta bestelakoak gurean ●

Foru plaza, 21 - 943 511 887 - 20100 Errenteria

Trantsizio prozesuan, baina hortzak zorroztuz

Hondarribia Arraun Elkarteko hiru traineruak prest daude. Gizonen nagusiak maila hobetu nahi du, emakumeenak gora iritsi, eta gizonen bigarren eskifaiak harrobia landu.

URKO IRIDOY ALZELAI

Gogo handiarekin hartuko dute lehen estropada Hondarribiko hiru eskifaiek. Aurre denboraldia bukatuta, uda luzea dute aurretik, eta helburu ezberdinak dituzten arren, lehiatzeko gogo berbera dute. Herria ere gogotsu dago, baina jakitun, azkeneko urteetan izandako garaipen bailara berriz ere errepikatzea oraindik ez dela egungo gauza. Trantsizio prozesuan daude gizonetzkoen eta emakumezkoen lehen taldeak, eta gizonen bigarren taldeak *Ama Guadalupekoa* gaztez elikatzen jarraitzeko helburuarekin egingo du arraun.

Aurreko urtean lortu zuten maila hobetzea du xede gizonetzkoen lehen taldeak. Urte oso onak bizi izan ditu

traineruak azken hamarkadetan, eta orain, beste prozesu batean dago eskifaia. «Joan den urtean ziklo berri bat hasi genuen. Hainbat baja izan genituen, eta aurten ere, beterano batzuek trainerua utzi dute. Beraz, birmoldaketa bat egin dugu. Berrito errepikatu nahi dut ziklo aldaketa batean gaudela orain», azaldu du Mikel Orbañanos gizonetzkoen lehen taldeko entrenatzaileak. Iaz, banderarik ez zuen lortu *Ama Guadalupekoa*-k, baina Eusko Label ligako ohorezko txandan hainbatetan izan ziren, elkarteko gazteen balioa erakutsiz.

Orbañanosek argi du hasieratik haien maila onena erakutsi nahi dutela. «Hasieratik emango dugu ahalik eta gehiena, eta ikusiko dugu aurkariek ere



nola erantzuten duten. Nire ustez maila txukunarekin hasiko gara, eta denboraldiari begira, taularen erditik gora egoteko helburua dugu». 21 estropada izango dira aurten ligan, eta iraila arte urteroko estropada eremuak bisitatu dituzte. Hondarribiko 39. bandera abuztuaren 8an izango da. «Urte oso onak izan ditugu, eta horregatik esker-tuta gaude. Orain urte batzuk itxaron beharko ditugu, baina uste dugu maila onenera iristeko ahalmena badugula». Ilusioz hitz egiten du entrenatzaileak, abian dagoen proiektuan erabat sinisten duelako.

Emakumeak, gorantz begira

Emakumezkoen traineruak maila galdu zuen iaz. Aurten ETE Ligan izango dira, baina Miren Garmendia patroiak argi du taldea psikologikoki gogorra dela, eta «porrotetatik ikasteko» abilezia badutela. Aurten, helburu argia dute: Euskotren Ligara itzultzea. «Igoera nahi dugu, eta noski, bideaz disfrutatu era berean. Bide zailtan ere disfruta daiteke, eta guk argi dugu gure onena emango dugula», esan du lema-zainak. Gainera, aurten, entrenatzaile aldaketa izan dute. Hainbat urtez Iker Cortesek bideratu ditu emakumeak, eta, aurten, Osertz Aldayk hartu du trainerua entrenatzeko ardura.

Hiru arraunlari berri batu dira aurten trainerura, kanpotik etorriak: Dalia Maria Pascal, Laura Sainz eta Irene Riaño. «Hiru fitxaketak nahiko berandu iritsi dira taldera, eta denok dakigu arraunkera hartzea ez dela pro-

OLAGARRO
KULTUR ELKARTEA

Ez amorrik eman!



Zale bat, Hondarribia Arraun Elkarteko zapia lepoan duela.
HITZA

zesu azkarra. Baina ea lortzen duten, eta gurekin batera disfrutatzen auzera duten». Patroiak adierazi du beti nahiko justu ibiltzen direla arraunlari aldetik, eta hiru inkorporazio berriak ederki etorriko zaizkiela udarako.

Emakumezkoen arraunaren maila etengabe hobetzen ari dela uste du Garmendiak, eta iritzi berbera du ETE Ligari buruz. «Urtero ikusten da ETE Ligan maila gorantz doala. Nik uste aurkari zuzenak izango ditugula aurrean, eta kontuan hartu behar dugu beti dagoela sorpresa faktorea hortik». Lemazainak nabarmendu du estropada eremuak ongi ezagutzea abantaila handia dela, bakoitzak bere gakoak ditu eta.

Entrenatzaile aldaketak motibazioa eman diela dio Garmendiak, eta Al-dayk, duen esperientziarekin, intentsitate handia eskatzen diela arraunlariei. «Aldaketak iristen direnean, beti ematen duzu ahal duzun guztia».

Bigarren taldea, harrobia landuz

Gonzalo Txalo Carrion arituko da beste urte batez bigarren traineruaren gidari moduan, bai entrenatzaile eta baita arraunlari lanetan ere. Harrobia lantzea eta gizonezkoen lehen eskifaia elikatzea dute helburu, baina maila

mantentzea ere badute xede. «Gazteak lantzen jarraitu behar dugu, baina era berean play-offa ekiditea ere gure asmoetako bat da. KAE1 Ligan bi multzo osatuko dira nire ustez, goikoak eta behekoak. Zarautz, Deusto, Zumaia eta Kaiku arituko dira goian, nire ustez», azaldu du Carrionek.

Gazte mailatik bi arraunlari berri iritsi dira B taldera: Aimar Amunarriz eta Ander Martin. «Aldaketa handia izaten da. Kirol ezberdina da funtsean, eta entrenamendu gehiago egiten dira. Zaila izaten da egokitzea, baina ongi dabilta». Azpitik ere belaunaldi onak datozela dio Carrionek. «Gazte mailan badago hamar arraunlari inguruko talde bat, eta elkartearen jarraitzen badute nire ustez maila ona eman dezakete traineruan. Kadeteetan ere maila ona ikusi dugu. Badakigu zaila izaten dela denek aurrera jarraitzea, baina multzo batek hemen jarraitzen badu, bide onetik goaz. Elkarteak badu etorkizuna».

Erreportaje osoa bidaso.hitza.eus atarian. ■



Hondarribian euskaraz bizi gara!



San Juango eskifaiak gora begira jarri dira

San Juan-Koxtapek goi mailan izango ditu aurten emakumeen eta gizonen eskifaiak. Hankak lurrean, iazko lan onari jarraipena eman nahi diote aurten.

MIKEL DEL VAL GARCIA

Iazko sasoiaren Batelerak Euskotren Ligara igo ondoren, goi mailan arituko dira aurten San Juango bi eskifaiak, emakumeena eta gizonena. Biek ala biek hilaren 28an hasiko dituzte Euskotren eta Eusko Label ligak, Madrilgo Buitrago de Lozoyako uretan, eta bi eskifaiak «gogotsu eta ilusioz» daude neguan egindako lan ona udan islatzeko. Iragan igandean bi eskifaiak Santiago plazan aurkeztu ondoren, sanjuandarrek prest dira lehiarako.

Batelerak trainerua elitera bueltan da iaz sasoi bikaina osatu ondoren. 2024an berriro sortu zuten eskifaia, eta soilik bi urtean ETE Ligatik Euskotreneira egin dute jauzi arrosek. Iazko

ETEn zazpi bandera irabazi zituzten, eta play-offean nagusitasunez gailendu ziren Donostiarraren, Zarautzen, Chapelaren eta Tiranen aurretik. Hori dela eta, goi mailan arituko da aurten Anartz Gereñok gidatzen duen eskifaia.

Neguko prestaketa ona izan dela baietsi du Gereñok. Entrenamenduak eta orain arteko emaitzak «onak» izaten ari direla zehaztu du arrosen prestatzaileak. Orain artean jokaturako jaietsieretan eta batel zein trainerilletan sentsazio positiboak izan dituzte, eta emaitza on horiek hilaren 7an Getarian jokaturako Euskadiko Txapelketan agerian geratu ziren, Batelerak hirugarren postuan sailkatu baitziren Arraun Lagunak eta Orioren atzetik. Emaitza



San Juan-Koxtape Arraun Elkarteak hilaren 14an aurkeztu zituen lehiari izango dituen bi eskifaiak, Santiago plazan. San Juan

horiek taldea «animoz» bete dutela esan du Gereñok, arraunlariek ikusi baitute «hor daudela eta ez daudela besteengandik urrun». Gakoa maila hori mantentzea izango dela zehaztu du sanjuandarren prestatzaileak.

Astebete geratzen da soilik arraun denboraldia hasteko, eta taldea «ondo

Aupa San Pedro!

Taxi Jaizkibel

Donibane. Antxo.
San Pedro. Trintxerpe. Lezo

943.39.14.14

rk

rkasesoria@gmail.com
943114148 · 663443337
Donibane kalea, 2 behea
PASAI DONIBANE

aholkularitza asesoria

| Lana | Kontabilitatea
| Fiskala | Finken Administrazioa

la * AUPA SAN JUAN! coquine

La coquine deco | lacoquinedeco

Foruen plaza 20, Errenteria - 943 90 57 74 - 610 32 54 16



eta gogotsu» dagoela aurreratu du Gereñok. Hala ere, prestatzailea «beldur pixka batekin» da, talde berria baitira kategoria nagusian. Iaz ez bezala, aurten estropada bikoitza izango dute astebururo, eta horrek «presioa» areagotuko duela nabarmendu du arrosen prestatzaileak. «Beldur pixka batekin naiz. Ea arraunlariek nola eramaten duten liga. Berriak gara eta ez dute liga hau ezagutzen. Taldea ondo dago, baina esaten diet zaila izango dela eta oinak lurrean izan behar dituztela».

Hankak lurrean, Gereñok jakinarazi du aurtengo helburuak jaitsierako play-offa ekin eta Kontxara sailkatzea direla. «Hortik aurrera lortzen duguna positiboa izango da». Horrez gain, arrosen prestatzaileak aurreikusi du «borroka» egongo dela sailkapeneko erdialdeko ontzien artean. Arrosen asmoa da traineru horiek lehian egotea eta estropadatik estropadara «maila onena» ematea.

Azken bi urteetan oinarriak finkatu ondoren, igoerako blokea mantendu dute. Pare bat baja izan dituzte soilik, eta horiek harrobitik etorritako gazte

mailako arraunlariekin bete dituzte. Emakumeen traineruko arraunlari guztiak etxeokak dira, eta uda osoan horrela arituko direla aurreratu du Gereñok.

Iazkoari jarraipena ematera

2024an igoera lortu ondoren, itzulera denboraldia ere bikaina izan zen San Juango gizonentzat. Eusko Label Ligan maila erraz mantendu ondoren (zortzigarren izan ziren), Kontxara bueltatu ziren, zortzi urteko lehortea- ren ondoren. 2017an lehiatu zen azkenekoz *Erreka* Kontxan, eta zazpigarren izan ziren iaz.

Arrosen plantillak «nahi baino aldaketa gehiago» izan dituela jakinarazi du Joseba Fernandez prestatzaileak. Aurten «sei baja garrantzitsu» izan dituzte, eta klubaren filosofiari helduta, horiek harrobiko gazteekin bete dituzte. Neguan egindako lana «ona» izan dela aurreratu du Fernandezek, eta gazteek «aurrerapauso sendoa» eman dutela aurten. «Espero dugu izandako bajak gazteekin ondo betetzea. Dugun irudipena baiezkoa da. Iaz plantilla luzea aurkeztu genuen, eta gazteek bizipenak eta eskarmen- tua jaso zituzten liga ezagutu ondoren. Zorionez etekina atera diogu horri, eta aurten ikusten da jende horrek beste

maila bat duela eta prest daudela goi mailako lehiaketa batean maila egokia emateko. Ilusio handiarekin ekingo diogu liga hasierari».

Sanjuandarren aurtengo eskifaia gaztea da, eta Fernandezek ez du «helburu zehatzik» jarri nahi izan, baina iazko denboraldia errepikatuko balute, helburuak betetzat emango lituzke arrosen prestatzaileak. Hala ere, talde «anbiziotsua» dira, eta Fernandezek «aurrerapauso bat» emateko itxaropena du: «Joan den urtetik bajak izan ditugu, baina lana ederra izan da, eta arraunlariek asko jarri dute beren aldetik. Itxaropentsu naiz, eta uste dut sailkapenean pixka bat gora egiteko gai izan gaitezkeela».

Orain artean egindako estropadetan «distirak» ikusi direla baietsi du Fernandezek, ondo aritu baitira. Jokatutako estropada horietan iazko denboraldiko bigarren txandako ontziekin borrokan aritu dira arrosak, eta horien aurretik sailkatzea ere lortu dute. Bide horretan, *Erreka*-ren prestatzaileak ligako bigarren txanda horretan egotea eta bertan lehiakor izatea nahi du aurten. Aurrez aipatutako anbizioari helduta, Fernandezek iaz baino hobeto hasi nahi du aurtengo liga, «lehen txandatik lehenbailehen eskapo egiteko eta liga lasaitasunez hartzeko». ■

EROSKI Lezo **AUPA SAN JUAN!**
Donibane Kalea, 7. 20100 Lezo - Tel.: 943 06 49 66

COEXPE
COOPERATIVA DE EXPORTADORES DE PESCADO DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO ARRAIN ESPORTATZAILEEN KOOPERATIBA
Portu aldea, 1. lonja. administracion@coexpe.es
Tel.: 943 39 91 60

Oinarriak finkatu nahi ditu San Pedrok

MIKEL DEL VAL GARCIA



Hilaren 14an aurkeztu zuten 'Libia'-ko eskifaia. Sanpedrotarra AE.

Hilaren 14an aurtengo udan uretan arituko den eskifaia aurkeztu ondoren, bihar (larunbata) hasiko du San Pedrok KAE1 Liga Astilleroko (Kantabria) uretan. Igandean, aldiz, etxeko estropada jokatuko dute, III. Adinberri Bandera lehiatuko baita Pasaiaiko badian, 12:00etatik aurrera

eta Sanpedrotarra Arraun Elkarteak antolatuta.

Sasoia hasteko dena prest badute ere, neguan aldaketa mordoa izan dira *Libia*-n. Lau urtez Orioko emakumeen entrenatzaile izan ondoren, Patxi Francesek Fernando Valenciagaren lekukoa hartu du San Pedroren gidaritzan, eta hura da moreen prestatzaile berria. Francesek aitortu du baja asko egon direla taldean, eta aurtengo eskifaia berria dela, «ia zerotik» hasi baitira. Taldea berria izateaz gain, mailaz «pika bat justu» dabilzala eta aurretik «errodaje asko» dutela esan du prestatzaileak. Hori dela eta, aurtengo sasoia «trantsiziokoa» izango dela aurreratu du Francesek.

San Pedron jakitun dira hazteko urtea izango dela aurtengoa, eta etorkizunera begira «oinarriak finkatu» nahi ditu aurtun *Libia*-k, «datorren

denboraldia ezberdina izateko». Bide horretan, sanpedrotarren helburua da «estropadetan lehiatzen ikastea» eta dutenarekin «ahalik eta ondoen aritzea». Talde berria izanik, «irregularra» izan daitekeela aurreratu du Francesek: «Uste dut estropada onak egingo ditugula, eta beste batzuetan gehiago sufrituko dugula estropada eremuekin edota mareekin. Gauza guztiez ikasi behar dugu aurtun».

Libia-k «ahalik eta ondoen» hasi nahi du bihar Astilleron hasiko den sasoia, baina hankak lurrean izanik: «Ea noraino iristen garen. Ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara, baina bada-kigu zein diren gure gabeziak. Dugunarekin egin behar dugu aurrera. Ikusiko dugu non gauden denboraldi bukaeran, baina talde honek bloke bezala finkatu behar du estropadetan lehiatzeko eta aurpegia emateko». ■

EROSKI
city

**AUPA
SAN PEDRO!**

Herriko plaza, 8.
Pasai San Pedro
Tel.: 943 39 38 12

**KEPA DEUN
ARRANTZALEEN KOFRADIA**

San Pedro tra ka tra!!!

San Pedro, 14 / 943 39 63 40
Faxa: 943 39 63 43 / admin@kofradiapasajes.com



Emakumeek Espainiako Txapelketa jokatu dute Galizian. Illunbe

Illunbe zutik, etorkizunean aurrera egiteko

MIKEL DEL VAL GARCIA

Trantsizio garaian da Trintxerpe Illunbe Arraun Elkartea. Iazko irailean Pasaiaiko Portu Agintaritzak (PPA) portuko instalazioetatik desalojatu zuen kluba, gune horretan egitekoak diren obregatik. Ordutik ziurgabetasun egoeran dago kluba, baina zutik jarraitzen du, topatu dituzten aurkakotasun guztiei aurre eginez.

Pasaiaiko Udalak itsas kontainer batzuk jarri dizkie Trintxerpeko ontzira-

lekuaren ondoan, eta bertan traineruak eta materiala gordetzen dituzte. Gimnasioko ariketak, aldiz, Trintxerpeko Kirolgunean egiten dituzte, ergometroak sartzeko gela bat utzi baitiete bertan.

Klubaren egoera onena ez dela baitsi du Olatz Hermo presidente eta beterranoen traineruko arraunlariak. Hermok beste klubetikiko begirune bera eskatu du, «itsasoaren ondoan egongo den, materiala gordetzeko balioko duen, gimnasioa izango duen eta gazteak erakartzeko gai izango den» insta-

lazio batzuk izateko. Klubaren egungo egoerarekin gazteak eta arraunlari berriak erakartzea zaila dela zehaztu du presidentek, instalazio egonkorrik ez dutelako. Arraunlarietako batzuk beste klub batzuetara utzi behar izan dituzte. Hori dela eta, kluba «trantsizio garaian» dagoela esan du Hermok.

Trantsizioak luzeak izan daitezkeela zehaztu du presidentek, baina argi du klub bateko instalazioak ezin daitezkeela itsas kontainer batzuk izan. Egoera horri irtenbide bat bilatzeko eta klubaren etorkizunaz hitz egiteko, bigarren bilera bat egingo dute Illunbek, udalak, aldundiak eta PPAk. Hermok adierazi du instituzioek «borondatea» dutela irtenbide batera iristeko, eta klubean «esperantza» dute horrela izango dela. Illunberen egoera latza izan arren, arraunlariak palakadak ematen jarraitu dute, eta instalazio berri batzuk izateko «gogo» dute, «kluba erakargarri egiteko eta arraunlari gazteei aterpe emateko».

Beteranoen ligak

Espazio faltagatik, klubak soilik bi traineru ditu lehian, emakume eta gizon beterranoenak. Beteranoen ligak apirilean hasi ziren eta uztailaren 18an bukatuko dira. Bi eskifaiei primeran doakie bertan. Gizonak, esaterako, bosgarren sailkatu ziren Getarian jokatu-tako Euskadiko Txapelketan, eta emakumeak Espainiako Txapelketan izan ziren iragan astean, Moñan (Galizia). Galiziako esperientzia «oso ona» izan dela esan du Hermok, eta «oso pozik» etorri dira bertatik. ■

CIFP - BLAS DE LEZO - LHII



HASIERAKO, ERDI ETA GOI ZIKLOAK
NABIGAZIOA - MAKINAK - URPEKARITZA

BOGA!

Eman izena telefono honetara deituz: 943 40 40 05
blasdelezo@pasaiaeskola.net



9

BIDASOAN ETA OARSOALDEAN IZANGO DIREN ESTROPADAK.

KAE2n kenduta, Bidasoko eta Oarsoaldeko traineruek bestelako liga guztietan dute ordezkariak. Beraz, liga horietako estropadak antolatzea dagokie: ekaina eta abuztua artean bederatzi izango dira bertan jokatuko diren estropadak. Pasaian lau izango dira: hilaren 21ean Heraniko bandera (ETE) eta KAE1eko San Pedrorena; eta abuztuaren 15ean San Juanen Eusko Labelekoa nahiz Euskotrenekoa. Hondarribiak beste lau jasoko ditu: abuztuaren 8an ETE eta KAE1 ligakoak, eta hurrengo egunean Eusko Labelekoa eta Euskotrenekoa. Hibaikak Oiartzun ibaira ekarriko du arrauna abuztuaren 9an KAE1eko bandera.

Seniorren ligetan, 90 estropada denera

Hilaren 20an (bihar) hasiko da traine-ruen seniorren ligen egutegia Astilleron, han egingo dituztelako ETE, KAE1 eta KAE2ko estropadak. Azkenak irailaren 20an izango dira, Portugaleteko El Corte Ingles banderarekin eta Eukotren nahiz Eusko Labelen play-offekin. Beraz, hiru hilabete osoz gozatu ahal izango dute arraunaren zaleek traine-ruen sasoiak. Bitarte horretan ETE, KAE1, KAE2, Eusko Label, Euskotren ligetako nahiz Kontxa-ko sailkapenak nahiz estropadak kon-tuan hartuta, 90 lehia izango dira.

Estropada gehienak urtetik urtera errepikatzen direnak dira. Baina bada berezitasun bat: mailarik gorenekoak, hau da, Eusko Label eta Euskotren, Ma-drilen hasiko dira hilaren 28an, hango Buitrago de Lozoya herriko urtegian zehazki.

Ekainean 11 estropada izango dira denera, uztailean 35, abuztuan 24, eta irailean hamar.

10

BIDASOKO ETA OARSOALDEKO TRAINERUAK.

2026ko arraun ligetan Bidasoko eta Oarsoaldeko hamar traineru izango dira lehian. Ordezkariak zabalena Hondarribiak du, emakumeen ETE Ligan nahiz gizonen Eusko Labelen eta KAE1en traineruak izango dituelako. Bina izango dituzte Hibaikak (Euskotren eta KAE1), San Juanek (Eusko Label eta Euskotren) eta Trintxerpek (Arraunlari Beteranoen Elkartearen ligan). San Pedroko Libia-k, berriz, KAE1en parte hartuko du. Iazkoarekin bi aldaketa daude ligen partai-detzari dagokionez: San Juango Batelerek ETEtik Euskotrene-ra jautzia egin dute, eta Hondarribiko emakumeenak Euskotreneko maila galdu, eta ETEn ariko da.

Lete
itzulpenak
www.lete.net

administrazioa . publizitatea
liburuak . enpresa

Tel.: 943 515 346 • lete@lete.net
www.lete.net

PORTUKO PILOTUAK




San Pedro kalea, 32
Pasai San Pedro
943 35 15 34
www.pasajespilot.com

EGUNEKO ZENTROA

Aiton-Etxe



ALDUNDIAREKIN HITZARTUTA
PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42
OIARTZUN - www.aitonetxe.com

- Haur eta helduentzat Terapia Estrategiko Laburra
- Banakako, bikote eta familia terapia

**JAKOBE
PSIKOTERAPIA**
620.12.24.29

Jakobe Batanero Alvarez
Psikologoa GZ 1579
Xenpelar kalea 6, solairuartera,
5. bulegoa. Errenteria
www.jakobepsikoterapia.com

ESTROPADEN EGUTEGIA 2026

| EKAINA | | | |
|---------|----------------------|--------------------|-------------|
| 20 | Astillero | Astillero | ETE |
| 20 | Astillero | Astillero | KAE1 |
| 20 | Astillero | Astillero | KAE2 |
| 21 | Hernaniko | Pasaia | ETE |
| 21 | Adinberri | Pasaia | KAE1 |
| 27 | Elantxobeko ikurrina | Elantxobe | ETE |
| 27 | Plentziako ikurrina | Plentzia | KAE1 |
| 27 | Elantxobeko bandera | Elantxobe | KAE2 |
| 28 | Comunidad de Madrid | Buitrago de Lozoya | Eusko Label |
| 28 | Canal de Isabel II | Buitrago de Lozoya | Euskotren |
| 28 | Unebide | Mutriku | KAE2 |
| UZTAILA | | | |
| 4 | Bilboko | Bilbo | Eusko Label |
| 4 | Bilboko | Bilbo | Euskotren |
| 4 | Donibane Lohizuneko | Donibane Lohizune | KAE1 |
| 4 | Bilboko | Bilbo | KAE2 |
| 5 | Petronor | Zierbena | Eusko Label |
| 5 | Petronor | Zierbena | Euskotren |
| 5 | Gesalaga Okelan | Zarautz | ETE |
| 5 | Gesalaga Okelan | Zarautz | KAE1 |
| 11 | Caixabank | Castro Urdiales | Eusko Label |
| 11 | Caixabank | Castro Urdiales | Euskotren |
| 11 | Camargoko | Camargo | ETE |
| 11 | Orioko | Orio | KAE1 |
| 11 | Camargoko | Camargo | KAE2 |
| 12 | Orioko | Orio | Eusko Label |
| 12 | Orioko | Orio | Euskotren |
| 12 | Burdinola | Lekeitio | ETE |
| 12 | Burdinola | Lekeitio | KAE2 |
| 18 | Chapelako | Chapela | Eusko Label |
| 18 | Chapelako | Chapela | Euskotren |
| 18 | Erandioko ikurrina | Erandio | KAE1 |
| 18 | Erandioko ikurrina | Erandio | KAE2 |
| 19 | Bueuko | Bueu | Eusko Label |
| 19 | Bueuko | Bueu | Euskotren |
| 19 | Portugaleteko | Portugalete | ETE |
| 19 | Portugaleteko | Portugalete | KAE2 |
| 25 | Fabrika | Donostia | Eusko Label |
| 25 | Fabrika | Donostia | Euskotren |
| 25 | Sestaoko | Sestao | ETE |
| 25 | Sestaoko | Sestao | KAE1 |
| 25 | Sestaoko | Sestao | KAE2 |
| 26 | Getxoko | Getxo | Eusko Label |
| 26 | Getxoko | Getxo | Euskotren |
| 26 | Zumaiako ikurrina | Zumaia | ETE |
| 26 | Zumaiako ikurrina | Zumaia | KAE1 |
| 26 | Laredoko | Laredo | KAE2 |

| ABUZTUA | | | |
|---------|---------------------------------------|--------------------|-------------|
| 1 | Santurtziko | Santurtzi | Eusko Label |
| 1 | Euskotren | Santurtzi | Euskotren |
| 1 | Ondarroako | Ondarroa | ETE |
| 1 | Marina Cudeyo | Pedreña | KAE1 |
| 1 | Ondarroako | Ondarroa | KAE2 |
| 2 | El Correo Kutxabank ikurrina | Lekeitio | Eusko Label |
| 2 | Ulyses Data For Science bandera | Lekeitio | Euskotren |
| 2 | Santanderko | Santander | KAE1 |
| 2 | Santanderko | Santander | KAE2 |
| 8 | Ondarroako | Ondarroa | Eusko Label |
| 8 | Ondarroako | Ondarroa | Euskotren |
| 8 | Txingudiko | Hondarribia | ETE |
| 8 | Arrantzaleen Kofradia | Hondarribia | KAE1 |
| 8 | Ría de Asón | Colindres | KAE2 |
| 9 | Hondarribiko Mapfre | Hondarribia | Eusko Label |
| 9 | Hondarribiko Balfego | Hondarribia | Euskotren |
| 9 | Errenteriako Hiria ikurrina | Errenteria-Orereta | KAE1 |
| 15 | Pasaiako CMO Valves ikurrina | Donibane | Eusko Label |
| 15 | Pasaiako Adinberri | Donibane | Euskotren |
| 15 | Castro Urdialesko | Castro Urdiales | ETE |
| 15 | Castro Urdialesko | Castro Urdiales | KAE1 |
| 15 | Castro Urdialesko | Castro Urdiales | KAE2 |
| 16 | Getariako ikurrina | Getaria | Eusko Label |
| 16 | Getariako ikurrina | Getaria | Euskotren |
| 22 | Zarauzko ikurrina (1. jard.) | Zarautz | Eusko Label |
| 22 | Zarauzko ikurrina (1. jard.) | Zarautz | Euskotren |
| 22 | Zarauzko | Zarautz | ETE |
| 22 | Zarauzko | Zarautz | KAE1 |
| 23 | Zarauzko ikurrina (2. jard.) | Zarautz | Eusko Label |
| 23 | Zarauzko ikurrina (2. jard.) | Zarautz | Euskotren |
| 23 | Bilboko ikurrina | Bilbo | ETE |
| 23 | Bilboko ikurrina | Bilbo | KAE1 |
| 29 | Arousako | Boiro | Eusko Label |
| 30 | Aresko | Ares | Eusko Label |
| IRAILA | | | |
| 2 | Kontxa. Gizonen sailkapena | Donostia | |
| 3 | Kontxa. Emakumeen sailkapena | Donostia | |
| 6 | Kontxa. Lehen jardunaldia | Donostia | |
| 13 | Kontxa. Bigarren jardunaldia | Donostia | |
| 19 | BBK | Bermeo | Eusko Label |
| 19 | Igoera-jaitsiera play-offa (1. jard.) | Bermeo | Eusko Label |
| 19 | Igoera-jaitsiera play-offa (1. jard.) | Bermeo | Euskotren |
| 20 | El Corte Ingles | Portugalete | Eusko Label |
| 20 | Igoera-jaitsiera play-offa (2. jard.) | Portugalete | Eusko Label |
| 20 | Igoera-jaitsiera play-offa (2. jard.) | Portugalete | Euskotren |

HIBAİKA

EUSKOTREN LIGA



Ane Aiestaran Etxebeste.
22 urte. Errenteria-Orereta.



Intza Ayala Vilar.
16 urte. Errenteria-Orereta.



Ana Collazos Egizabal.
23 urte. Donostia.



Nerea Deobarro Corvo.
22 urte. Errenteria-Orereta.



Amaiaur Garcia Rincon.
20 urte. Donostia.



Laia Garcia Rincon.
17 urte. Donostia.



Maddi Insasuti Intziarte.
24 urte. Errenteria-Orereta.



Malen Irurzun Alzualde.
19 urte. Errenteria-Orereta.



Jare Lasa Betelu.
19 urte. Donostia.



Eva Lopez Chafer.
25 urte. Aguilent.



Edurne Martin Toquero.
16 urte. Errenteria-Orereta.



Itxaso Murcia Susenene.
24 urte. Errenteria-Orereta.



Amaiaur Olaiz Ibarzabal.
23 urte. Astigarraga.



Uxue Rodriguez Garcia.
25 urte. Errenteria-Orereta.



Alejandra Rumbau Redondo.
22 urte. El Campello.



Elene Telletxea Yarzabal.
18 urte. Lezo.



Inge Ugarte Gartziandia.
25 urte. Donostia.



Nora Urbe Muxika.
20 urte. Usurbil.

Entrenatzailea:

Iñaki Mendizabal Iturria

KAE1 LIGA



Oier Aierdi Gurpegi.
49 urte. Lezo.



Ignacio Aizpurua Arconada.
29 urte. Andoain.



Itzurun Aristi Zarate.
20 urte. Lezo.



Andres Arlandis Peiro.
19 urte. Valentzia.



Aratz Bergara Kortadi.
34 urte. Donostia.



Alejandro Fariña Roma.
38 urte. Meis.



Adur Ferradas Aizpurua.
23 urte. Errenteria-Orereta.



Oier Gallastegi Rodriguez.
20 urte. Pasaia.



Urko Garagarza Ortes.
27 urte. Donostia.



Martin Itoiz Guerra.
38 urte. Hernani.



Iraitz Lamana Lopez de Uralde.
22 urte. Donostia.



Edgar Leal Mendez.
20 urte. Anaco.



Asier Martin Fernandez.
20 urte. Hernani.



Antonio Martinez Delgado.
20 urte. Torrevieja.



Andoni Ostolaza Lizaso.
47 urte. Zarautz.



Ekaitz Otegui Gimenez.
23 urte. Donostia.



Jose Antonio Pereira Da Silva Maia. 52 urte. Portugal.



Ander Plata Gomez.
19 urte. Errenteria-Orereta.



Ander Rekondo Herrero.
24 urte. Villabona.



Liher Saiz Zarate.
21 urte. Errenteria-Orereta.



Endika Sanz Martinez.
26 urte. Barakaldo.



Jordi Triadu Dominguez.
34 urte. Girona.



Ander Urtasun Osacar.
40 urte. Donostia.

Entrenatzailea:

Dumitru Daniel Cobjuc

SAN JUAN

EUSKOTREN LIGA



Izar Aranburu Mutiloa.
19 urte. Oiartzun.



Maialen Arrazola Santesteban.
41 urte. Donostia.



Elaia Arruti Irastorza.
19 urte. Lezo.



Eider Berasategi Di Malta.
17 urte. Pasaia.



Kenia Bermudez Sayans.
16 urte. Pasaia.



Aiora Calvo Arbona.
19 urte. Donostia.



Arixe Calvo Arbona.
16 urte. Donostia.



Oihana Cereijo Etxarri.
36 urte. Pasaia.



Nahia Colmenar Justo.
17 urte. Lezo.



Leire Erzibengoa Rekarte.
17 urte. Oiartzun.



Danae Erki Aguilár.
23 urte. Errenteria-Orereta.



Olaia Etxaide Agirre.
18 urte. Pasaia.



Janire Fernandez Garcia.
27 urte. Lezo.



Basagaitz Gereño Omil.
46 urte. Pasaia.



Laia Gereño Legorburu.
18 urte. Pasaia.



Maddi Gereño Legorburu.
20 urte. Pasaia.



Lierni Intxausti Somoano.
20 urte. Pasaia.



Katia Irazu Salaberria.
19 urte. Lezo.



Amalur Leon Gereño.
46 urte. Pasaia.



Amaritu Lopetegi Aramendi.
19 urte. Pasaia.



Inder Paredes Esnaola.
33 urte. Pasaia.



Naroa Prieto Cuesta.
26 urte. Oiartzun.



Alaitz Urtizberea Gastañares.
21 urte. Hondarribia.



Laida Valderrama Crujeiras.
23 urte. Oiartzun.

Entrenatzailea:

Anartz Gereño Omil

EUSKO LABEL LIGA



Enaitz Alfonso Legorburu.
18 urte. Oiartzun.



Francesco Amos Cobzaru.
23 urte. Errumania.



Gaizka Aranburu Furtado.
21 urte. Lezo.



Ion Arbona Iglesias.
27 urte. Pasaia.



Imanol Arregi Intxausti.
37 urte. Oiartzun.



Xabier Arruabarrena Nuñez.
19 urte. Pasaia.



Lander Etxabe Etxeberria.
19 urte. Pasaia



Mikel Etxabe Etxeberria.
24 urte. Pasaia.



Aritz Etxezarreta Casas.
21 urte. Pasaia.



Ander Egaña Agirresarobe.
29 urte. Donostia.



Orkatz Erkizia Ortega.
22 urte. Oiartzun.



Unax Errondosoro Lujanbio.
22 urte. Lezo.



Jon Escribano Sarasua.
20 urte. Pasaia.



Naim Ezzoubair Cueva.
22 urte. Donostia.



Mikel Andoni Enriquez Sistiaga.
18 urte. Errenteria-Orereta.



Asier Iparragirre Martinez.
17 urte. Pasaia.



Aritz Irigoien Agesta.
25 urte. Oiartzun.



Eneko Jauregi Berrotaran.
17 urte. Pasaia.



Unax Jimenez Elizondo.
22 urte. Oiartzun.



Julen Larre Bengoetxea.
24 urte. Errenteria-Orereta.



Ander Makazaga Gonzalez.
28 urte. Pasaia.



Adur Mitxelena San Sebastian.
21 urte. Errenteria-Orereta.



Imanol Muñoz Roman.
30 urte. Hernani.



Oier Mugarza Galar.
27 urte. Oiartzun.



Angel Obregon Sierra.
44 urte. Santander.



Hugo Ogallar Jimenez.
17 urte. Errenteria-Orereta.



Markel Perez Orbeagoza.
23 urte. Pasaia.



Beñat Urbizu Val.
29 urte. Lezo.

Entrenatzailea:

Joseba Fernandez Daguer

SAN PEDRO

KAE1 LIGA



Niko Aguilár Moreira.
20 urte. Donostia.



Alex Badiola Iglesias.



32 urte. Errenteria-Orereta.



Iñaki Bereau Arrieta.
19 urte. Pasaia.



Eneko Carrasquedo Brosa.
19 urte. Pasaia.



Aitor Carrillo Tumas.
54 urte. Hondarribia.



Diego Diez Txintxurreta.
20 urte. Ordizia.



Ibai Dominguez Otxoa.
20 urte. Pasaia.



Oier Elustondo Dominguez.
25 urte. Pasaia.



Manex Ibabe Sagasta.
21 urte. Gasteiz.



Aitor Iruñ Luluaga.
21 urte. Tolosa.



Jon Jauregi Mendizabal.
26 urte. Andoain.



Oier Jauregi Bueno.
20 urte. Donostia.



Asier Lopez de Murillas Tapia.
22 urte. Tolosa.



Beñat Mayo Salaberria.
17 urte. Pasaia.



Xabier Ostolaza Urkizu.
42 urte. Orio.



Aimar Santiago Tardio.
22 urte. Pasaia.



Mamadou Sarr.
34 urte. Senegal.



Beñat Seguro Baqueriza.
19 urte. Donostia.



Beñat Susperregi De Lucas.
20 urte. Donostia.



Iñigo Tamariz Artola.
27 urte. Pasaia.









Aitzol Tolosa Balzola.
26 urte. Pasaia.

Entrenatzailea:

Patxi Frances Irastorza.

ETE LIGA

-  **Nerea Amunarriz Valladares.**
19 urte. Hondarribia.
-  **Erroxe Amunarriz Darceles.**
20 urte. Hondarribia.
-  **Ane Azpiroz Beldarrain.**
22 urte. Hondarribia.
-  **Erika Badiola Zalakain.**
20 urte. Hondarribia.
-  **Irati Camarero Barrasa.**
24 urte. Hondarribia.
-  **Miren Garmendia Moneo.**
27 urte. Hernani.
-  **Nerea Itxaso Txapartegi.**
25 urte. Donostia.
-  **Eneritz Martiarena Arozena.**
24 urte. Irun.
-  **Iraia Mendizabal Sarriegi.**
24 urte. Hondarribia.
-  **Katalin Negrete Arrillaga.**
22 urte. Mendexa.
-  **Maddi Olaskoaga Elias.**
26 urte. Hondarribia.
-  **Olatz Pagola Arrieta.**
20 urte. Urnieta.
-  **Dalia Maria Pascal.**
24 urte. Santander.
-  **Maidier Peñalva Gomez.**
26 urte. Gasteiz.
-  **Maidier Perez Arzak.**
29 urte. Hernani.
-  **Irene Riaño Diez.**
19 urte. Revilla De Camargo.
-  **Laura Sainz Ferradas.**
19 urte. Liaño.
-  **Jone Ugarte Casas.**
20 urte. Hondarribia.

Entrenatzailea:
Osertz Alday Eizagirre

EUSKO LABEL LIGA

-  **Joseba Amunarriz Goikoetxea.**
47 urte. Hondarribia.
-  **Meltxor Amunarriz Ollokiegi.**
30 urte. Hondarribia.
-  **Julen Balerdi Sanz.**
20 urte. Hondarribia.
-  **Sergio Calavia Carbajal.**
27 urte. Segovia.
-  **Ibai Camarero Barrasa.**
26 urte. Hondarribia.
-  **Mattin Colas Mendoza.**
23 urte. Hondarribia.
-  **Mattin Etxaniz Iruetagoiena.**
24 urte. Zumaia.
-  **Iker Huarte Ruiz.**
23 urte. Hondarribia.
-  **Andoni Irazoki Mikelarena.**
30 urte. Doneztebe.
-  **Xabier Irigarai Ferreira.**
25 urte. Hondarribia.
-  **Eneko Iridoy Gaztelumendi.**
25 urte. Hondarribia.
-  **Aimar Kanpandegi Oiarzabal.**
23 urte. Hondarribia.
-  **Osertz Larretxea Dominguez.**
20 urte. Hondarribia.
-  **Julen Martinez Rodriguez.**
20 urte. Hondarribia.
-  **Jon Morillo Garcia.**
27 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Ion Olaizola Martinez.**
25 urte. Donostia.
-  **Xabier Olaskoaga Elias.**
23 urte. Hondarribia.
-  **Xabier Ormazabal Amondarain.**
30 urte. Tolosa.
-  **Xabier Salaberria Fachado.**
23 urte. Hondarribia.

Entrenatzailea:
Mikel Orbañanos Zabala

KAE1 LIGA

-  **Beñat Alkain Epelde.**
25 urte. Hondarribia.
-  **Aimar Amunarriz Olazabal.**
18 urte. Hondarribia.
-  **Telmo Bald Saez De La Fuente.**
25 urte. Irun.
-  **Lander Colas Mendoza.**
21 urte. Hondarribia.
-  **Inaxio Etxebeste Lizarraga.**
20 urte. Hondarribia.
-  **Alex Fernandez Sanchez.**
24 urte. Oiartzun.
-  **Oier Garaiar Uzkudun.**
22 urte. Urnieta.
-  **Unai Jerico Amunarriz.**
21 urte. Hondarribia.
-  **Eneko Larruskain Larretxea.**
23 urte. Hondarribia.
-  **Ander Lazkanotegi Etxegoien.**
19 urte. Hondarribia.
-  **Jon Leiza Igartzabal.**
23 urte. Lesaka.
-  **Bittor Lekuona Petrikorena.**
20 urte. Irun.
-  **Ander Martin Amador.**
19 urte. Hondarribia.
-  **Martin Muñoz Castellanos.**
23 urte. Hondarribia.
-  **Bittor Perez Amunarriz.**
19 urte. Hondarribia.
-  **Manex Ramos Zumalde.**
23 urte. Lesaka.
-  **Heren Suarez Emazabel.**
21 urte. Hondarribia.

Entrenatzailea (eta arraunlaria): **Gonzalo Carrion Insausti.**



grupo asegi



JAKIN S.L

AHOLKULARITZA - ASEGURUAK
ERA GUZTIETAKO GESTIOAK

Morongilleta 11-13. Errenteria - Orereta. Tel.: 943 51 96 88 - 943 52 75 32

